

<https://info.nodo50.org/La-absolucion-de-la-pieza-Zumalabe.html>



La absolución de la pieza Zumalabe no resuelve la injusticia con el 18/98

- Noticias - Noticias Destacadas -



Fecha de publicación en línea: Martes 26 de mayo de 2009

Copyright © Nodo50 - Todos derechos reservados

Sin conocer todavía la Sentencia del Tribunal Supremo, pero teniendo noticia de nuestras absoluciones, los procesados absueltos de Joxemi Zumalabe queremos hacer públicas las siguientes opiniones:

<https://info.nodo50.org/local/cache-vignettes/L275xH63/cabecera1898-d2abf-b952f.jpg>

- Antes de nada, queremos hacer llegar nuestro cariño y solidaridad más sentida a todos nuestros compañeros y compañeras del denominado sumario 18/98 que en estos momentos mantienen en prisión y dispersados en las diferentes cárceles del Estado. Queremos hacer una mención especial a nuestro compañero y amigo Carlos Trenor.

- La absolución de los miembros de la pieza Joxemi Zumalabe (junto con la de Natale Landa) no corrige en absoluto la injusticia que se ha cometido con nosotras y nosotros, ni con el conjunto de las personas procesadas del 18/98, como tampoco la que se ha hecho, se está haciendo y se pretende hacer en todos los sumarios políticos abiertos en la Audiencia Nacional. De ninguna manera. Sólo en el contexto del 18/98 hay 40 personas en la cárcel por el mero hecho de defender y de llevar a la práctica sus ideas políticas, sin armas, sin violencia alguna. Cientos de personas siguen amenazadas con la cárcel inminente porque el Estado sí utiliza la violencia jurídica para conseguir sus objetivos políticos.
- ¿Quién va a resarcirnos por la violación continuada de nuestros derechos durante estos diez años? ¿Por la preocupación y el sufrimiento de nuestras familias y/o personas amigas y allegadas? ¿Por el desgaste laboral y económico que hemos sufrido? ¿Quién va a resarcir los daños de las personas que aún siguen encarceladas? ¿Cuándo se va a terminar la impunidad con la que el Estado reprime la disidencia social y política en este país?
- En este macrosumario el Estado ha utilizado la violencia a lo largo de más de diez años: acusaciones infundadas, detenciones, torturas, prisión preventiva, limitación de derechos, una vista oral de casi dos años, nuevas detenciones, nueva prisión, dispersión... y la ha utilizado de forma cruel e inhumana. Ahora, al final del proceso insisten en despreciar y castigar nuestra dignidad con las detenciones y encarcelamiento de las otras ocho personas que se encontraban bajo fianza como nosotros. Sin conocimiento del fallo del Supremo, la Audiencia Nacional manda a la Guardia Civil a detener a personas que siempre han estado en "libertad" vigilada a disposición de los tribunales. ¿Qué alarma social, qué riesgo de huida o reincidencia tienen José Luis Elkoro, Juan Pablo Dieguez, Javier Salutregi, Iñaki Zapiain, Xabier Otero, Elena Beloki, Inma Berriozabal y Juan Mari Mendizabal?
- La criminalización de la Fundación Joxemi Zumalabe, de los movimientos sociales y políticos, la persecución penal de la desobediencia civil ha sido un arma política ilegítima utilizada durante nueve años para desmovilizar y aterrorizar a sectores importantes de la sociedad vasca. No es necesario encarcelar para obtener los resultados que el Estado persigue contra la disidencia, basta con criminalizar, perseguir, inculcar miedo a asociarse, a organizarse, a poner en marcha medios de comunicación propios; basta con obligar a la gente a trabajar en la pura autodefensa, apartándola de los esfuerzos constructivos por un cambio social y político. Se quiere una sociedad vasca desmovilizada, dócil y sumisa, una sociedad muerta.
- Queremos agradecer toda la solidaridad que hemos recibido durante todos estos años, la cercanía de nuestros compañeros y compañeras de trabajo, el compromiso de cientos de personas autoinculpadas, los grupos sociales de toda clase que han defendido la labor de la Fundación, los miles de ciudadanas y ciudadanos que han participado en las decenas de movilizaciones realizadas durante estos largos años, en la última época de la mano de la plataforma 18/98+... Estamos profundamente agradecidas y agradecidos, más que agradecidos, abrumados por la solidaridad y apoyo que hemos recibido, y ante todas esas muestras nos comprometemos a continuar trabajando, desde dentro o fuera de la Fundación, para lograr una Euskal Herria más libre y justa.

Olatz Altuna, Mikel Aznar, Alberto Frías, Fernando Olalde, Sabino Ormazabal, Iñaki O'shea y Mario Zubiaga
Procesados y absueltos en el sumario 18/98

Oraindik Auzitegi Gorenaren epaitza jakin gabe, baina gure absoluazioaren berri badugula, Joxemi Zumalabeko absolbituok honako iritziak plazaratu nahi ditugu:

- Lehenik eta behin, gure maitasun eta elkartasun beroena helarazi nahi diegu Estatu Espainoleko kartzeletan preso eta sakabanatuta dituzten “18/98 sumarioko” kideei. Aipamen berezia egin nahi diegu piezako kide eta lagun Carlor Trenorri.
- Joxemi Zumalabe piezako kideon (eta Natale Landaren) absoluazioak ez du inondik inora zuzentzen gurekin eta, oro har, 18/98ko prozesatuekin egin den bidegabekeria. Ez du inola ere arintzen Auzitegi Nazionalak irekita dauzkan sumario politiko guztien izugarrikeria. Ez, inola ere ez. Soilik 18/98ko testuingurura mugatuta, 40 pertsona daude une honetan kartzelan, zergatik eta, armarik edo bestelako indarkeriarik erabili gabe, beren ideia politikoei eutsi eta praktikara eramateagatik. Eta beste ehunka pertsona daude kartzelara joateko mehatxupean, Estatuak nabarmen erabiltzen du-eta indarkeria juridikoa bere helburu politikoak lortzeko.
- Zeinek ordainduko du hamar urteotan egindako kalteengatik, gure eskubideen zapalkuntzagatik? Eta gure familiei, lagunei eta ingurukoei eragindako kezka eta sufrimenduagatik? Nork ordainduko du gure lan-arazo eta xahutze ekonomikoarengatik? Nork, nola, noiz, zer erantzungo zaie oraindik kartzelan dauden pertsoneri? Noiz amaituko da Estatuaren inpunitatea? Noiz arte herri honetako disidentzia sozial eta politikoa erreprimitzeko zigorgabetasuna?
- 18/98 makro-sumario honetan hamar urte luzez erabili du indarkeria Estatuak: salaketa funsgabeak, atxiloketak, torturak, behin-behineko espetxealdiak, eskubide-urraketak, ia bi urteko ahozko ikustaldia, berriz ere atxiloketak, berriro kartzelatzeak, sakabanaketa... Estatuak modu krudelean erabili du indarkeria. Orain, prozesu juridikoaren amaieran, fidantzapeko askatasunean zeuden zortzi kide kartzelatu dituzte, berriz ere gure duintasuna mesprextatuz. Pertsona horiek atxilotzera, Auzitegi Gorenaren epaitza ezagutu aurretik bidali du Guardia Zibila Auzitegi Nazionalak, nahiz eta kontrolatuta zeuden zaintzapeko “askatasunean”. Jose Luis Elkoro, Juan Pablo Dieguez, Javier Salutregi, Iñaki Zapiain, Xabier Otero, Elena Beloki, Inma Berriozabal eta Juan Mari Mendizabalen kasuan, jokabide oldarkor hori justifikatzeko alarma soziala edo ihes egiteko arrazoiak argudiatzea zentzugabea da.
- Joxemi Zumalabe Fundazioaren eta mugimendu sozial eta politikoen kriminalizazioa eta desobedientzia zibilaren jazarpen penala bederatzi urteotan erabilitako arma politikoa izan da, euskal jendartearen sektore garrantzitsuak beldurtzeko eta desmobilizatzeko xedez. Kartzelatzera iritsi gabe ere, Estatuak disidentziaren aurka egin dezake. Aski du kriminalizatzearekin, jartzetzearekin, elkartzeko, antolatzeke edo, esate baterako, komunikabidepropioak martxan jartzeko beldurra sorraraztearekin. Aski du, azken batean, jendea autodefentsan lan egitera behartzearekin, aldaketa sozial eta politikorako bestelako ahalegin sortzaileetatik aldenduz. Euskal jendarte desmobilizatu eta otzana nahi da: jendarte hila.
- Urte hauetan jasotako elkartasuna eskertu nahi dugu. Ez dugu inoiz ahaztuko lankideon hurbiltasuna, ehunka pertsona autoinkulpatuen konpromisoa, Fundazioaren lana babestu duten mota guztietako talde sozialen engaiamendua, hainbat mobilizaziotan parte hartu duten milaka eta milaka pertsonak, 18/98+ plataformari bultzada eman diotenak... Bihotz-bihotzez eskertzen dugu jaso dugun elkartasuna eta babesa. Eta horren aurrean konpromisoa hartzen dugu lanean jarraitzeko, Fundazioaren barrutik edo kanpotik, Euskal Herri libreago eta justuago baten alde.

Sinatzailleak: Olatz Altuna, Mikel Aznar, Alberto Frías, Fernando Olalde, Sabino Ormazabal, Iñaki O'shea eta Mario Zubiaga.

:: [Dossier Nodo50 sobre 18/98+](#)